

EUSKADIKO TRANTSIZIO ENERGETIKOAREN ETA KLIMA ALDAKETAREN LEGEA, PROIEKTUAN

Posted on 02/06/2023 by Naider

Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak [Euskadiko Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Legearen proiektua](#) onartu du maiatzean. Lege horrek, Euskadiko klima-alaketari buruzko lehenak, esparru juridiko egonkor bat ezartzen du, **erantzukidetasunaren bidez deskarbonizazioa** bizkortzeko.

Legeak, Euskadin klima-alaketari heltzen dion lehenak, gizarte osoa hartzen du eraginpean, eta esparru juridiko egonkor bat ezartzen du, erantzukidetasunaren bidez deskarbonizazioa bizkortzeko. Horretarako, beharrezkoa da **trantsizio justu eta iraunkor bat** egitea, herritar guztiei helduko diena eta ekitatea eta elkartasuna bermatuko dituen, **sektore ekonomiko, lurralde eta biztanleria ahulenetan arreta jarritz**, generoaren, adinaren edo dibertsitate funtzionalaren ikuspegiak kontuan hartuta.

Lege-proiektu honek hainbat jarduera aurreikusten ditu, besteak beste:

- 1- Eraginkortasun energetikoko eta berriztagarrietako betebeharrak, enpresentzat, etxeentzat, administrazioarentzat eta gainerako kontsumitzaileentzat.
- 2- Herri-administrazioetatik energia-iturri berriztagarriak sustatzea.
- 3- Energia biltegitratzearekin lotutako proiektuak sustatzea.
- 4- CO2 atzitzea eta biltegitratzea ahalbidetzen duten ekimenak.
- 5- Mugikortasun iraunkorreko planak.
- 6- Sektorre- eta lurralde-politika espezifikokoak.

Gainera, onartutako proiektuak hainbat ekimen jasotzen ditu:

- 1- Trantsizio Energetikorako eta Klima Aldaketarako Ekimenen Euskal Erregistroa.** Bertan, erakunde publikoek edo pribatuek klima-ekintzako jarduerak inskribatuko dituzte.
- 2- Lurralde osoaren helburuak lortzen lagunduko duten klima- eta energia-planak.**
- 3- Trantsizio Energetikorako eta Klima Aldaketarako Bulegoa sortzea.**
- 4- Herritarren partaidetzarako organoak:** Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren aldeko Itun Soziala, Euskadiko Trantsizio Energetikoaren eta Klimatikoaren Herritarren Batzarra, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Batzordeak eta antzeko erakundeak.
- 5- Aurrekontu publikoetan ikuspegi energetikoa eta klimatikoa txertatzea.**

